

Sarbide eskabidea egiteko argibideak 2024-25 kurtsoa

A. Irakurri beharreko dokumentuak (www.ehu.eus/unamuno)

1. Zuzendariaren Gutuna.
2. Onarpen-Araudia.
3. Barne Arautegia.
4. Erregimen ekonomikoa eta Administrazio Arauak.
5. Datu pertsonalen babeserako informazioa

B. Eskaera "On line" bete ondoren inprimatu aplikazio informatikoak sortzen dituen dokumentuak eta sinatu.

C. Dokumentu hauek eskaneatu eta aplikaziora igo.

1. (*) Eskaeraren inprimakia: sartzeko eskabidea (1 dokumentua); datu pertsonalen inprimakia (2 dokumentua); Datu pertsonalen babeserako informazioa (4 dokumentua); tutoreek informazioa jaso dezaten baimena (4 dokumentua) eta barne araudiaren onarpena (5 dokumentua).
2. (*) Gida baimena tamainako argazki bat.
3. (*) NAN fotokopia (bi aldetatik).
4. (*) Ikasle berriak Euskadiko Autonomi Erkidegoan hauta-froga egin ez badute, froga orokorraren fotokopia bidali beharko dute.
5. (*) Bankuaren datuak baieztatzeko, Internetik aterata banku kontuari dagokion inprimakia aurkeztu behar da edo banku libretaren fotokopia, non kontuaren zenbakia eta titularrak agerian egon behar diren.
6. (*) Ikasle ezinduentzat eta goi mailako kirolarientzat gordetako plazak eskatu nahi dituzten ikasleek ezaugarri hori frogatzen duen dokumentua aurkeztu behar dute, kasuan kasuko administrazioak emana.
7. (*) Lehen mailan matrikulatzen ez diren ikasle berriek hauta-frogaren fotokopiaz gain beraien unibertsitateko espedientea aurkeztu beharko dute.

(Ezin baduzu eskaneatu posta bidez bidali eta Ikastetxe Nagusitik igoko ditugu aplikazio informatikora)

D. Eskabideak aurkezteko epeak

Berritzeak egiteko epea, **maiatzaren 1etik 31era** izango da. Ikasle **berrien** kasuan epea, **maiatzaren 1etik ekaineko 30 arte** izango da. Ekainak 30 baino beranduago jasotzen diren eskaerak, epez kanpokoak bezalaxe hartuko dira. Plazak esleitzeko orduan epean jasotakoak izango dute lehentasuna.

Mesedez, ez ahaztu aplikazioak sortzen dituen 1, 2, 3, 4 eta 5 dokumentuetan data jartzea eta sinatzea.

(*) Dokumentazio osoa dagokion bezala beteta ez baduzu bidaltzen zure eskaera ez da kontutan hartuko plaza emateko orduan.